

Esakerak eta atsotitzak

A, B, C, mahaia hanka luze; J, T, K , maisua bueltaka
A, zer pare! Karakola eta barea!
Abadearen lapikoa, txikia baina gozoa
Abenduko eguna, argitu orduko iluna
Aberats izatea baino, izen ona hobe
Abere gaiztoa da gorrotoa
Adiskide onekin, orduak labur
Adiskide gabeko bizitza, auzo gabeko heriotza
Adiskideak, etsai
Aditu nahi ez duenak, ez du esan behar
Aditzaile onari, hitz gutxi
Afaldu nahi ez duenaren afaria beti prest
Agindua zorra, esan ohi da
Ahoa zabal, egindakoak apal
Ai! San Juan Bautista, San Juan Bautista, urtean bi aldiz balitza
Aita biltzaileari, seme hondatzaile
Aldi luzeak, guztia ahaztu
Alfer egon eta alfer-lana egin, biak berdin
Alferkeria, askoren hondamendia
Alferrak beti lanez beterik
Alferrarendako lanik ez, eta astirik ez
Alferrarentzat jana eta langilearentzat lana, ez da inoiz faltako
Alferrik da, ura joan eta gero, presa egitea
Amari egindako zorrak ez dira inoiz ordaintzen
Amen, zu hor eta ni hemen
Andra Mari martxokoan kuku, San Pedrotan mutu
Apaizak azken hitza bere
Apaizaren eltzea, txikia baina betea
Apirila, euri pila
Apirila euritsu, urte hura ogitsu
Apirila ikusi nahi duenak on, ehun urtez beharko du egon
Apirilaren azkenean, hostoa haritz gainean
Apirilean euriak euriari, uztailean eguzkiak eguzkiari
Apirileko erlea enetzat, maiatzekoa anaietzat
Apirileko lorea urrea baino hobe, maiatzeko lorea batez baino hobe
Apirileko trumoa, berrogei eguneko eguraldi txarra
Ardi galdua atzeman daiteke, aldi galdua berriz ez

Ardi txikia, beti bildots
Ardiak beeka egonik, ez du jaten belarrik
Ardo gozoak lau begi eta oinik ez
Ardoa, dirua eta andreak gizona harrapatzeko sareak
Arian, arian, zehetzen da burnia
Armiarma beltz handiak irteten dutenean, eguraldiaren aldaera
Armiarmaren pausoa, euriaren asmoa
Arranoak lumak behar, txepetxak ere bai
Arrats gorri, goiz haize
Arrotz-herri, otso-herri
Aseak gosea ezin ikus
Aski ez duena, deusik ez duena
Asko baduk/n, asko beharko duk/n
Asko daki zaharrak, erakutsi beharrak
Asko dakin/k//zu, bizitzen baldin badakin/k//zu
Askoren mina, tontoen atsegina
Asto askok, lasto asko
Asto merkea, nagusiaren nekea
Astoak mandoari belarri handi
Astoari ezin mendeka, mendeka albardari
Ataun eta Zegaman egunez ikusi eta gauez eraman
Atzo jaio eta gaur hil, denbora arin dabil
Aukera maukera, azkenik trunkera
Aurreak erakusten du atzeak nola dantzatu
Aurrera begiratzen ez duena, atzean dago
Azaroa bero, negua gero
Azaroa hotz, negua motz
Azeri zaharrak ile zaharra uzten du, aztura zaharrik ez
Azeria oiloen predikaria
Azeria solas ematen zaukanean ari, gogo emak heure oiloari
Azken gaizto egingo duk/n//zu, txoria, gazterik egiten ez baduk/n//zu habia
Babak esan omen zuen: Txikia banintzen, handia banintzen, apirilean lorea nintzen
Bakoitzak bere astoari, arre
Bakoitzari berea, eta beti adiskide
Balantza duen aldera erortzen da arbola
Baleki gazteak, baleza zaharrak
Baleuka/Balego eta balitz, elkarren ondoan dabiltz
Balizko erroak, irinik ez
Baserritar kalezale, etxe hondatzaile
Bat eman eta bi hartu, gure etxean ez berriz sartu

Bat halako beste, ahuntzaren odoloste
Bat izatea hobe, bi itxo egitea baino
Begi bat aski du saldunak, ehun ez ditu sobera erostunak
Begiak noraino, nahia haraino
Begiatatik urruti, bihotzetik urruti
Begira ezak etxea, begiraturen hau etxeak
Behin apaiz bati galdetu zioten nor den mantsoa. Hamar eta erdietan aldizkaria ekartzen duen
atsoa
Beltz guztiak ez dira ikatz
Berkak handiak, ezkurak txikiak
Bere etxe pobrea, erregearena baino hobea
Berri gaiztoa bera zaldi
Beste lekutan ere, zakurrak oinutsik ibiltzen dira
Besteen bartzak ikusten eta bere zorriak ez
Besteen faltak aurreko aldean, geureak bizkarrean
Besteez gaizki mintzo denak, entzun litzake bere ogenak
Besteren ama ona, norberea askoz hobea
Beti on nahi duena, maiz gaizki
Beti ordu duena, beti berandu heldu dena
Bi etxetako txakurra, goseak jan
Bidaide, gogaide
Bihotzaren giltza, mihia
Bihotzean dagoena, mihira irten
Bista ona eta elkar ezin ikusi
Bizi zaitetz bizi, heriotza etortzen baita bizi-bizi
Bizitza da labur, heriotza luzarorako
Bost sosen pupua, eta hamar sosen trapua
Bost zentrimetroko pupua, hamar metroko trapua
Burdina berotan jo behar da
Burla minena, egia dioena
Bururik ez duenak, hankak ibili behar
Bururik ez duenak, txapel-beharrik ez
Bururik ez eta txapela nahi
Bururik nekatzen ez duenak hankak nekatu behar
Buztana lastozkoa duena, suaren beldur
Dagonean bonbon, ez dagoenean egon
Dakien guztia ez derrala, ahala oro jan ez dezala
Dakienak, dakien adina esaten du
Dakizunaz gutxi mintza zaitetz, ez dakizunaz bat ere ez
Danbolin ordainduak soinu txarra jotzen du

Dantzatu nahi ez dana, ez doala dantzara
Denbora badoa eta gu harekin
Denek berdina pentsatzen dutenean, inork ez du pentsatzeko ahaleginik egiten
Derrigorrezko gauza bi, hil eta hil arte bizi
Dezagun gutxi, dezagun beti
Dirua: morroi ona, nagusi txarra
Dirua, mutilik hoberena eta nagusirik txarrena
Diruak malkarrak zelaitzen
Donibaneko euria garien galgarria
Edale ona, kapa zaharduna
Ederra ez da beti argia izaten, baina argia beti da ederra
Edozein txoriri, eder bere habia
Edozeinek, edan ondoan, dio bere iritzia
Egarri dagoenarentzat, ur lohirik ez
Egi guztiak ez dira on esateko
Egia, askoren erregarria
Egia da latz eta garratz
Egiak esan eta adiskideak gal
Egizu beti on, ez jakin arren non
Egur zaharra, su txarra
Eguzki bera, on ala gaiztoentzat
Eguzki eta euri, martxoko eguraldi
Eguzki gabeko larunbatik ez
Eguzkia nora, zapiak hara
Ekark idia, edo begia
Elizatik hurrenena, paradisutik urrunena
Elur asko den urtean, garia; eta erle asko dugunean, ezia
Elur urte, gari urte
Elur-melur, ez nauk hire beldur, badiat etxean nahiko arto eta egur
Elurra, bere aroan, asegarri; handik kanpora, gosegarri
Elurra mendian, haize hotza herrian
Emailea isil bedi, hartzailea mintza bedi
Entzun eta isil, baiezko borobil
Ergeltasuna da senda ez daitekeen gaixotasuna
Eroak egiten duena bukaeran, zuhurrak egiten du hasieran
Eroriz, eroriz, oinez ikasten da
Errementariaren etxean zotza burrunntzi
Errezo luzea eta afari motza
Esaera zaharrak, gezurrik ez
Esana da erraz eta egina garratz

Esana esan, emana eman
Esaten baduk nahi duana, entzungo duk nahi ez duana
Eskolako umeak sasiz sasi, gutxi jan eta asko ikasi
Eskola-mutilak sasirik sasi, asko jan eta gutxi ikasi
Eskola-mutilak sasiz sasi, asko jan eta gutxi ikasi
Esku batekin bestea bustitzen da eta biekin aurpegia
Eskuko behatzak ere, ez zituen Jainkoak berdinak egin
Etorkizuna, kontakizuna
Etxe hutsa, haserre hutsa
Etxe onean berri txarrik ez
Etxean gatza ugari dagoela eta, ez dezazula bazkaria gehiegi gazitu
Etxean ikusia, umeak ikasia
Etxeko kea nahiago auzoko sua baino
Etxeko sua etxeko hautsez estali behar da
Etxeko suak etxean batu, ez inora aldendu
Euria eta eguzkia, Erromako zubia
Euria eta eguzkia, karakolen ezteia
Euskarak etxekotzen gaitu, erdarak arrotzen
Euskararekin goizean "egun on", gauean "gabon" eta egun osoan hor konpon
Ez ardo bizidunik, ez andre bizardunik
Ez begiratu esanari, begiratu bihotzari
Ez da horixe atzo goizekoa
Ez da ogirik neke gaberik
Ez da surik ke gaberik, ez kerik su gaberik
Ez dago aldeko haizerik, nora joan ez dakienarentzat
Ez dakusan begik, ez negarrik
Ez egin gaitzik eta ez izan beldurrik
Ez egin oihanean, eder ez denik kalean
Ez gehiegi hitz egin, ez bada/baduzu nahi huts egin
Ez naiz joaten elizara, maingu naizelako; joaten naiz tabernara, ardoa on zaidalako
Ez otu ohean andreari, ez uretan zaldiari
Ezer ez duena, emateko prest
Ezina, ekinez egina
Ezinak ez du legerik
Ezkondubaino lehen, ezagutzea lehenago
Ezkondubaino lehen, kontu zer egiten den
Ezkondubaino eta damutu
Ezkondutako urtea eta txerria hildako urtea onenak
Ezkur urte(a), elur urte(a)
Gaitz guztiak, bere gaitzagoa

Gaitz txikiak nau ikaratzen eta handiak nau biguntzen
Gaitza, gaitzagoak derahatza
Gaitza, ongi hator, baldin bakar bahator
Gaizki esanak barkatu eta ongi esanak gogoan hartu
Gaizki esanak barkatu, ondo esanak ondo hartu
Gaizki jan eta gaizki lan
Garaileak lagun asko ditu, galtzaileak, aldiz, lagun onak
Garaipena, neke askoren ondorena
Garia belarrarekin eta umea negarrarekin hazten dira
Gaua, gogapenen ama
Gaur hitza eman, bihar haizeak eraman
Gaurko izerdia, biharko ogia
Gauza bat pentsatu eta bestea esan
Gaztaro alferra, zahartzaro okerra
Gaztean alfer, zaharrean lander
Gehiago edukiago eta nahiago
Gehiegi baino, aski hobe
Geroa, alferraren leloa
Gezurra esan nuen etxean: ni baino lehenago kalean
Gezurra esan nuen Getarian, eta ni baino lehenago zen atarian
Gezurrak buztana labur
Gezurrak hankak motzak ditu
Gezurtiak zer duen merezi? Egia esatean ez sinetsi
Gilen, bihar hilen, etzi ehortziren, etzidamu ahantziren
Gogoa den tokian, aldaparik ez
Gogoko tokian, aldaparik ez
Goiz hodei-gorri, arrats itur-begi
Goiz gorri, arrats iturri (euri)
Goiz gorri, arratseko euri
Goiz gorri, arratserako euri
Goiz gorri, haize edo euri
Goiz guztiak du bere arratsaldea
Goiz jagia, ez da egunsentia
Goiz jaikia goiz gose, berandu jaikia loaz ase
Goizean porrusalda eta eguerdian azak, aise kabituko zaizkik ipurdian galtzak
Gorostian gorosti, eta Donostian Donosti
Gure behiak erro handiago eta zuenak esne gehiago
Gurutzerik gabeko bizitzarik ez
Gustuko tokian aldaparik ez
Gutxi edatea eta gutxi sinistea, zintzoaren egitea

Gutxi ikasia, beti jakintsu
Gutxiegi eta larregi, beti kaltegarri
Gutxiegi eta larregia, beti kaltegarria
Gutxika gutxika, asko egiten da
Guztia gura izatea, guztia galtzea
Guztien adiskide dena, ez da inorena
Guztien gogora egitea, da gauza nekea
Haitzean haziak haitzera nahi
Haitzean jaiok haitzera nahi
Hala ez baldin bada, halatsu
Hamabi lanbide, hamahiru miseria
Han goi-goian izarra, erreka aldean lizarra, etxe honetako jaunak urre gorrizko bizarra
Handiak, txikia ahantzarazten
Haria meheenean eten ohi da
Hariak jostorratza baino luzeagoa izan behar du
Haritz eroriari, orok egun
Harri ibiliak/erabiliak goroldiorik ez, erle uxatuak abaraskarik ez
Hartuak, emana zor
Hartzen dena, zortzen dena
Hastea erraz, irautea zail
Haurrak hazi, nekeak bizi
Haurrak hazi, nekeak hasi
Hauxe da lorra! Goian zerua eta behean lurra
Hazi gaiztoa, bera sortzen
Hegaztia airerako, gizona lanerako
Hemen denak ogia jaten dugun saguak gara
Herri txikia, infernu handia
Hil arteraino bizi, han arte ez izi
Hil eta gero, salda bero
Hilak lurpera, biziak mahaira
Hire kideaz ezko hadi eta izango haiz ondo beti
Hiru belarritan igaren hitz isila, orotan lasterka dabila
Hitza eztiago, eragina handiago
Hitzontzi, hutsontzi
Hobe da berotzen duen su ttipia, ezik ez erretzen duen su handia
Hobe da ezer, ezer ez baino
Hobe da gorde eta ez eske
Hobe da oinez eta segurora, eta ez zaldiz eta zulora
Hobe da txori bat eskuan, eta ez bost ezkurreen
Hobe duzu egin eta damutzea, ez egin eta damutzea baino

Hogei astez kuku, San Pedrotan mutu
Hordikeria, gizatasunaren lotsaria
Hori eta atariko haizea bat
Hutsegina, hutsegiteak zuzentzen dira
Ibiltari gauean, logura goizean
Idia adarretik eta gizona hitzetik
Idia ez da bakarrik uztartzen
Idiari adarretik eta pertsonari hitzetik
Igaitea gorago, eroria dorpeago
Igaroa, igaro
Ihaurk egin dezakeana ez utzi besteri egiten
Ilargi eta laino sorginentzako giro
Ilunpeko lana, argitako lotsa
Inoren oiloak, gureak baino arrautza gehiago
Iretargia argi da, baina eguna baizen argi ez. Inoren ama ona da, baina
norberena baizen ona ez.
Itsuen herrian begibakarra alkate
Iturri txikiak, handiak adina egarria kentzen du
Izena duen guztiak izatea ere badauka
Izenak ez du egiten izana
Jaio zara, hilko zara
Jakindunen artean dabilena, jakindun
Jakiteak ez du ogirik jaten
Jakiteko hartzen, ikas ezazu ematen
Jan behar ba duk/n//zu, lan egin beharko duk/n//zu
Jan eta edan, eta pakea eman
Jan nahi baduk, lan egin beharko duk
Jan-edanaren gozoa! Kontu-emanaren gaiztoa!
Jaten duten santuekin, ez dago fidatzerik
Jende ederra, jende alferra
Jesus, Maria eta Jose, beti jan eta beti gose
Jokoa ez da errenta, hobe oiloa erreta
Kandelario elurra dario, San Josek ere lagunduko dio
Kanpoan/Kalean/Auzoan uso, etxean otso
Karga mas karga, hartutako tokian deskarga
Katua ari bada musua garbitzen, euria ari da hurbiltzen
Katua eta esnea deskuidoaren zain egoten dira
Katurik ez dagoen etxean, saguak dantzan
Kontuak garbi, eta adiskide zahar
Kukuak kuku Erromako zubian, zortzi egunerako agertuko da Euskal Herrian

Kukuen kantatzean, euri eta eguzki
Kupel txarretik, ardo onik ez
Lagun onak, ondu; gaiztoak, gaiztotu
Lan baratza, lan aratza
Lan lasterra, lan alferra
Lanik errazena, agintzea
Lapiko txikiak, laster gainez
Larrean jaiak, larrean nahi
Lastoaren sua, ez da luzaroko sua
Lasto-su, laster-su
Lastozko isatsa duenak, atzera begira
Lehen hala, orain hola (honela), gero ez jakin nola
Lehenean barka, bigarreanean urka
Lehenengo andrea da emazte, bigarrena senikide/senide, hirugarrena gaitz eta kalte
Lehenengo lepotik orain ere burua
Lehenik begiek jaten dute
Lehenik jan, gero lan
Lekuan lekuan ardiak, beltzen artean zuriak
Lorerik ederrena ere zimeldu
Loretik fruitua, haurretik gizona
Lur bigunean, zulo handia
Lurra bigunago, harra barrenago
Lurrak hazi, lurrak jan behar
Luzez pentsatu eta laster obratu
Maiatza hotz, urtea zorrotz
Maiatzean erdian bero eta beste erdian hotz
Maiatzeko ihintza: urrea
Makur izanagatik igitaia, xuxen mozten du lastogaia
Mando merkea, nagusiaren nekea
Mari gorri, bihar eguzki eta etzi euri
Marinelaren emaztea, goizean senardun, arratsaldean alargun
Martxo, martxo, ez haiz hain gaizto. Nire ardi ahulenak egiten dik zazpi oin salto
Martxoan dela Bazko? Urte hartan arto eta ogi franko
Martxoaren erdin gaua eta eguna berdin
Martxoaren hasera, "xaharraren" piztuera
Mendiak mendia behar ez du, baina gizonak gizona bai
Mendian dakienak ibiltzen ez du lokatzik biltzen
Mendietan dagoen elur gaineko haizeak otsoa ikaratu zuen betirako
Merezi duen astoak bi pentsu
Mihiak ez du hezurrik hausten, baina bai hautsarazten

Mihiaz egiten den mina, da azken sendatzen dena
Min neukan lepoan, lotu ninduten zangoan
Munduan nahi duenak luzaroan bizi, oiloekin ohera eta txoriekin jagi
Nagi alferrak ez du esaten behin ere "gaur"
Nagi: utz nazak jaikitzen, has nadin lan egiten
Nagia, beti lantsu
Nagusi eroa baino, gogorra hobe
Nahi bada jan, egin behar da lan
Nahi duana hiretzat, besterentzat
Nahi duenak luzaroan bizi, oiloekin oheratu eta txoriekin jaiki
Nahi izatea da ahal izatea
Nahiago dut behin _to_, eta ez hamabi _emango_
Nahigabeko ezkontzea, neke eta kaltea
Neguko eguna, argitu orduko iluna
Nekatzen da emailea, baina ez hartzailea
Neke gaberik ez da bizitzerik
Neke ondoren, poza
Nekez hartutako gauza, nekez utzi
Nere etxeko kea, auzoko sua baino hobea
Nerea neretzat, zurea biontzat
Nola bizi, hala hil
Nola soinu, hala dantza
Nolako aita, halako semea
Nolako egurra, halako sua
Nolako eltzea, halako tapa
Nolako pekatua, halako penitentzia
Nolako zura, halako ezpala
Nolakoa bizitza, halakoa heriotza
Nolakoa da hitzuna, halakoa du entzuna
Non gogoa, han zangoa
Non hilko zara, haraxe joango zara
Norantz isurkia, harantz ura
Nori berea da zuzenbidea
Nori berea, Jaunaren legea, nori berea da gizalegea
Nork bere opilari ikatza
Nork dabilen bideak harrapatu ohi du
Nork nori, zartagina zaharrak pertzari: "Utikan, beltz hori!"
Odolak, su gabe diraki
Ogi gogorrari hagin zorrotza
Ogi gogorrari, hortzak zorrotz

Ohakoan dena ikasten, ez da jagoiti ahazten
Ohitura gaiztoa, berandu ahaztua
Ohiturak lege ohi dakar
Ohoin handiak urkarazten txikiak
Oihal txarra, merke dalarik, garesti da
Oilo ibiltari, azerien janari
Oiloari, oloa; astoari, lastoa
Oinezkorik nahi ez, zaldizkorik etorri ez
On egin dizuela janak eta kalterik ez edanak
Onak on direla, hobeak hobe
Onegi dena beretzat ez da aski besterentzat
Ongi nahi hauenak//zaituenak negar eginaraziko dik/din//dizu,
gaizki nahi hauenak//zaituenak barre eginaraziko dik/din//dizu
Orain oraingo eta gero geroko
Ordaintzeko azkena, hartzeko lehena
Ordu batean ezin dana, bitan egiten da
Ordua doanean doa mundua
Orratzak baino hariak luzeago izan behar du
Osasuna, paregabeko ondasuna
Otar guztietan sagar ustelen bat
Otsaileko laburrean katuak gau lapurrean
Otso gosea, ibiltari
Otsoa aipatu, otsoa atean
Otsoak otsoari gaitzik ez, eta lapurrak lapurrari laztan
Otsoak otsoari hozkarik ez
Pazkoko euria, urte guztiko ogia
Putzu txikitik atera eta handiagoan sartu
Sabelak egitean gur-gur, barteko afariak agur
San Bizente hotza, neguaren bihotza
San Jose, aurretik edo atzetik, negualdixe
San Juan euli gabe, urtea ogi gabe
San Juanetan kuku, San Pedrotan mutu
San Simon eta San Judas, udara joan da eta negua heldu da, artzain gaixoa galdu da
Santa Katalina, larrazkenaren azkena (azaroaren 25a)
Santo Tomaseko feria, txorizua eta ogia
Sasian jaioak, sasian nahi; gure mandoak ez du etxera nahi
Segura eta Zegaman egunez ikusi eta gauez eraman
Senide urruna baino, auzo hurra hobe
So ez dagoena geroari, deika ari zaio goseari
Su gabeko etxea, gorputz odol gabea

Su gaberik, ez da kerik
Sua eta ura belaunaz behetik
Sua eta ura, belaunetik behera
Su gabeko etxea, gorputza odolgabea
Tantaka-tantaka upela bete
Tontoak zer daki egiten? Ondo egina desegiten
Tresnak jabea dirudi
Txakur zaunkaria, gutxitan hozkaria
Txalupan nagusi asko daudenean, arrantza gutxi
Txapel batekin bi buru ezin estali
Txapela buruan, ibili munduan
Txapelik handienak ere ez du buru hutsik betetzen
Txintzarri mihigabea, sasian usteldu
Txori ttattarra, abesti ttattarra
Txoriak eder du bere kabia
Ulertzaile onari, hitz gutxi
Umeak! Isilik oiloak pixa egin arte
Umearen zentzuna, etxean entzuna
Ur beroaz erre txakurra, epelaren beldur da
Ur handietan, arrain handiak
Urak bide egingen du
Urak dakarrena, urak darama
Urde goseak, ezkurra amets
Urredun eta eder egingo du lehen
Urri, baina ongi
Urrun helduko da, baratz doalarik, geratu gabe doana
Urrunago, gezurrak handiago
Urruneko eltzea urrez, hara orduko lurrez
Urrutiago, berriak handiago
Urrutiko intxaurrak, hamalau; alderatzean, lau
Urrutiko intxaurrak, hamalau; bertara joan/gerturatu eta lau
Urtarril hotza, neguaren bihotza
Urtarrila, hotzak hila; otsaila, firili-faraila; martxoa, dinbirri-danbarra; apirila, biribila
Urte askotan, txapela kaskoan
Urte euritsu, urte ogitsu
Ustea ez da jakitea
Usteak, alde erdia ustel
Usteak erdia hutsa eta beste erdia putza
Usteak erdia ustel
Utzi ezan/k//zu ona hobeagatik

Zahar eroa, gazte zoroa baino txarrago
Zahar-ele, zuhur-ele
Zaharrari azkar joateko eta hurrari geldi egoteko esatea, berdin da
Zakur handiak, zaunka handia
Zapatak zapata jagoten du, abarkak abarka ez
Zeinek bera nolako, besteak uste halako
Zelangoa bizitza, zelangoa heriotza
Zenbat buru, hainbat aburu
Zer berri da munduan? Bakoitza bizi dela bere moduan
Zer egingo dugu? Hil arte bizi
Zerezko zera zertan dela zereko zerarekin
Zer ikusi, hura ikasi
Zer jan, hura izan
Zeuen izenean eta neure gizenean
Zeuen osasunerako eta neure onerako
Zeurea egin artean mantso eta mantso; zeurea eginez gero zantzo eta zantzo
Zeuretzat on ez dena, besteari ez opa
Zor zaharra, izen txarra
Zor zaharra, zor txarra
Zorra, lorra
Zozoak beleari ipurbeltz
Zozomikote egunak, tristeak eta ilunak
Zuberotarrak zangoak arin, burua berdin
Zuharrari ez eska gari
Zulo bakarra duen sagua, katuak laster harrapatuko du
Zumar zuzenak, itzal okerra
Zura berago, harra barrenago
Zure izenean eta nire gizenean
Zuri guztiak ez dira irin

Erranairuak

(Azpeitiko Euskara Patronatuaren webgunetik jasotakoak: erabili.eus)

- «Ahaleginaren neurrikoa izaten da arrakastaren ospea». Pierre Corneille.
- «Akatsik gabeko lagunaren bila dabilena, lagunik gabe geratzen da». Turkiako esaera.
- «Ametsa zugan dago; betetzeko oztopoa ere bai». Thomas Carlyle.
- «Askotan ereriko zara taula gainetik baina garrantzitsuena berriro igotzea da». Hawaiiiko esaera.
- «Balizko gauzen bila, benetazkoak galtzen ditugu» Plutarco.
- «Basoen ondotik dator euria». Hawaiiiko esaera.
- «Bidezkoa zer den jakitea eta ez egitea koldar hutsa izatea da». Konfuzio.
- «Bihotzarekin maite dutenak bihotzarekin mintzo dira». Francisco Gómez de Quevedo.
- «Bihur ezazu bizitza amets eta ametsa bizi ezazu». Antoine De Saint Exupery.
- «Bizitza ez da minututan neurtzen, unetan baizik». Benjamin Button.
- «Bizitza oilategiko eskailera bezain motza da, eta zirinez betea». Kataluniako esaera.
- «Bizitzak, eman nahi izanez gero, zentzua badu». Jean-Paul Sartre.
- «Dakidan apurra nire ezjakintasunari zor diot». Platon.
- «Dakiguna tantatxo bat da, ez dakiguna itsaso zabala». Isaac Newton.
- «Dezagun gutxi dezagun beti».
- «Egin ezazu eta estuasun guztiak amaituko dira». Hawaiiiko esaera.
- «Egin ezazu maiz zure adiskidearen baratzerako bidea, sasiak bidea ikusten ez eragozteko». Indiako esaera.
- «Eguraldi txarra etorri egiten da, ona ere bai.». Hawaiiiko esaera.
- «Eguzkia izkututzen denean, izarrak ageri dira».
- «Etsipena nork bere buruaz beste egitea da» Honoré de Balzac.
- «Ez beldurrik izan, zabaldu gabeko egunari». Ingeles esaera.
- «Ez dago adimenik aldaketa beharrik ez dagoen tokian». George Wells.
- «Ez etsi: hodeirik beltzenetatik ur tantarik garbienak eta jorienak erortzen dira». Txinako esaera.
- «Ezin da inor bere gaitasunengatik epaitu, bai, ordea, gaitasun horiekin egiten duenarengatik» Marmontel.
- «Ezjakina ez da isiltzen, isiltzea delako ez dakien gauzetako bat».
- «Gaitzik handiena, beti, isilik geratzen diren koldarrena da».
- «Garrantzitsuena bihotzarekin bakarrik ikusiko duzu, begientzat ikusezina izango da». Antoine De Saint Exupéry.
- «Garunitsuak ez ditu begiak ezertarako». Armeniako esaera.
- «Gizaki gehienak zuhaitzetik lurrera erortzen diren hostoak bezalakoak dira». Buda.
- «Gizatiarra da huts egitea, baina gizatiarrago errua besteei egoztea». Baltasar Gracián.
- «Heriotza igaro den bizitza da. Bizitza etortzear den heriotza da». Jorge Luis Borges.

«Historia gurea da eta herriek egiten dute». Salvador Allende.

«Inoiz ez zoaz nora zoazen ez dakizunean bezain urruti» Oliver Goldsmith.

«Inor ez da aske bere buruaren jabe ez bada». Epikteto.

«Irudimenik ez duenak, ez du hegali». Muhammad Ali.

«Itsua bakarrik dabil haztamuka». Hawaiiiko esaera.

«Izan zaitez eguzkia bezain alaia eta itsasoa bezain mederaezina». Cesare Catà.

«Nahiago dut grinaz hiltzea eta ez aspermenez». Vincent van Gogh.

«Naizenak narama izan naitekeenera» Lao Tzu.

«Oiloitsuak ere artalea aurki dezake batzutan» Alemaniako esaera.

«Politika historiako bigarren lanbiderik zaharrena da. Askotan antza handia du aurrenekoarekin». Ronald Reagan.

«Tantaz tanta, erreka». Txinako esaera.

«Zure ametsa bete nahi baduzu, esna zaitez!» Ambrose Bierce.